BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4955

EBAZPENA, 2011ko irailaren 19koa, Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariarena, antzerki-zabalkunderako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendariaren 2010eko abenduaren 30eko Ebazpenean finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

AURREKARIAK

1.– Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendariaren 2010eko abenduaren 30eko Ebazpenak antzerki-zabalkunderako dirulaguntzen deialdia egin zuen eta bere 2.1 artikuluan dirulaguntza horien zenbateko orokorra ehun eta hamabost mila zazpiehun eta laurogeita hamazazpi eurotan (115.797) finkatu zuen.

2.– Halaber, Ebazpen horren bigarren Xedapen Gehigarrian honako hau aurreikusten zen:

«2. artikuluan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Etxepare Euskal Institutuan beste programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Aipatutakoaren berri eman beharko da Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendariaren ebazpen baten bitartez».

3.– 2011ko otsailaren 1ean deitutako antzerki-zabalkunderako dirulaguntzen eskabide-epea ireki zen eta urriaren 29an itxiko da. Epe honetan zehar ikusi eta jasotako eskabide eta dirulaguntza-kopuruagatik komenigarria izango litzatekeela modalitate horietarako zegoen diru-kopurua gehitzea.

4.– Une honetan, diru-laguntzen deia egiten duen Ebazpenaren Xedapen Gehigarrian aurreikusten den moduan, aurrekontu-disponibilitatea dago,

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Antzerki-zabalkunderako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen 2010eko abenduaren 30eko Ebazpenean finkatzen den gehienezko zenbatekoa berrogeita hamaika mila laurehun eta hogeita hiru euro eta berrogei zentimotan (51.423,40) gehitzea.

Beraz, aipaturiko Ebazpenaren 2.1 artikuluan aurreikusitako diru-kopurua ehun eta hirurogei eta zazpi mila berrehun eta hogei euro eta berrogei zentimotan (167.220,40) finkatzen da.

Bigarrena.– Aurreko artikuluan finkatu den zenbateko gehigarria honela banatuko da deialdi honetako modalitateen artean:

● Hogeita bost mila berrehun eta hogei euro eta berrogei zentimo (25.220,40) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo birak egiteko.

● Hogeita sei mila berrehun eta hiru (26.203) euro antzerki-denboraldiak sustatzeko.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendariari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailari bi hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek hartzen denetik aurrera izango du eragina.

Donostia-San Sebastián, 2011ko irailaren 19a.

Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria,
MARIA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.